

**A.4.4. MEKOLA****A.4.4. MEKOLA**Azalera: 7.715 m<sup>2</sup>**I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak**

Auzo hau hiri arearen erdialdean dago. San Andres Pasealekutik hasita, Arrajola mendiaren Hegoaldeko mendi hegalean gora igotzen da. Maldan egindako hirigintza izanda ere, egitura ordenatua du, baina inisteko arazo larriak ditu, bai oinezkoentzat bai ibilgailuentzat.

Arrateko errepideak bitan banatzen du auzoa. Errepide horrek, puntu honetan, zirkulazio baldintza zailak ditu, sekzioaren estutasuna dela-eta. Arazo hau larriago bihurtzen da bi aldeetan garatzen diren etxebizitzek aparkaleku gisa erabiltzen dutelako bide hori.

Alde honetan, bertako eraikinak bermatzeaz gainera, zera proposatzen da:

\* Trenbidea desbideratu eta lurperatzen denez, azpiegitura honek hartzen duen plataforma oinezkoen pasealeku bezala berreskuratuko da, eta horri esker auzoa hobeto integratu eta egituratuko da erdialdeko hiri eremuarekin, gaur egun nahiko bananduta baitago. Proposamen hau A.A. 139 01 Mekola 4 Jarduketa Isolatuaren bidez garatuko da, eta horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

**II. Hirigintza-Erregimen Orokorra**

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Eguno eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2B "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

**III. Ordenazio Xehatua**

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.